**DÑA. BEGOÑA PÉREZ DE EULATE GONZÁLEZ, SECRETARIA DE LA COMISIÓN MIXTA DE TRANSFERENCIAS DE LA DISPOSICIÓN TRANSITORIA 1ª DE LA LEY 27/1983, DE 25 DE NOVIEMBRE, SOBRE RELACIONES ENTRE LAS INSTITUCIONES COMUNES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA Y LOS ÓRGANOS FORALES DE SUS TERRITORIOS HISTÓRICOS**

**CERTIFICA:**

Que en el Pleno de la Comisión Mixta de Transferencias celebrado el 5 de diciembre de 2019, se acordó el traspaso desde las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma a los Órganos Forales del Territorio Histórico de Álava, de funciones y servicios en materia de carreteras, de acuerdo con los términos siguientes:

**A) Competencias del Territorio Histórico de Álava.**

El presente Acuerdo se realiza al amparo de la regulación competencial que contempla el artículo 7.a).8 de la Ley 27/1983, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, y de acuerdo con lo previsto en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco y demás normativa de general aplicación.

**B) Bienes y funciones que asume el Territorio Histórico de Álava.**

1.- Queda traspasada al Territorio Histórico de Álava la titularidad del tramo de la autopista AP-68 cuyo itinerario discurre por el Territorio Histórico de Álava y que se detalla en la relación número 1, así como las funciones y servicios

**BEGOÑA PÉREZ DE EULATE ANDEREAK, AZAROAREN 25EKO 27/1983 LEGEAREN, AUTONOMIA-ELKARTE OSORAKO ERAKUNDEEN ETA BERTAKO KONDAIRA-LURRALDEETAKO FORUZKO IHARDUTZE-ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANEI BURUZKO LEGEAREN LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRAK SORTUTAKO BITARIKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK**

**ZIURTATZEN DU:**

Transferentzien Bitariko Batzordearen 2019ko abenduaren 5eko Osokoan, errepideen arloko eginkizunak eta zerbitzuak autonomia-erkidego osorako erakundeen eskuetatik Arabako Lurralde Historikoaren eskuetara aldatzea hitzartu zen, hauekin bat:

**A) Arabako Lurralde Historikoaren eskumenak.**

Autonomia-erkidego osorako erakundeen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko erlazioei buruzko 27/1983 Legearen 7.a).8. artikuluak xedatutako eskumen-arauen babespean adostu da akordio hau, bai eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.34 artikuluan xedatutakoarekin eta aplikagarri diren gainerako arauekin bat ere.

**B) Arabako Lurralde Historikoak aurrerantzean bere gain izango dituen ondareak eta eginkizunak.**

1.- Arabako Lurralde Historikoaren esku geratzen da 1. zerrendan zehaztutako AP-68 Bilbao-Zaragoza autobidearen zatiaren titulartasuna, (zeinaren ibilbidea Arabako lurralde historikotik pasatzen dena), eginkizunak eta zerbitzuak ere,

correspondientes, todo ello en los términos que especifica el presente Acuerdo.

akordio honetan zehazten den moduan.

De conformidad con lo previsto en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, el Territorio Histórico de Álava ejercerá dichas funciones poniendo en vigor las normas técnicas y de señalización que se establezcan en el Plan General de Carreteras que aprueben las Instituciones Comunes, así como realizando como mínimo las previsiones, objetivos, prioridades y mejoras que se establezcan en el citado Plan General de Carreteras.

Azaroaren 25eko 27/1983 Legean xedatutakoarekin bat, Arabako Lurralde Historikoak eginkizun horiek beteko ditu eta, horretarako, indarrean jarriko ditu erakunde erkideek onartzen duten errepideen plan orokorrean ezartzen diren arau teknikoak; halaber egingo ditu plan horretako aurreikuspenak, helburuak, lehentasunak eta hobekuntzak, gutxienez.

Asimismo, el Territorio Histórico de Álava se sujetará a las normas técnicas que dicte el Estado sobre construcción y conservación de carreteras, con carácter general, en aplicación de convenios, acuerdos o recomendaciones de carácter internacional, de acuerdo con lo establecido en el artículo 20.3 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco.

Horretaz gain, oro har, Estatuak errepideen eraikuntzaren eta kontserbazioaren arloan ezartzen dituen arau teknikoak ere beteko ditu Arabako Lurralde Historikoak, nazioarteko hitzarmen, akordio edo gomendioak betetzeko xedez, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 20.3 artikuluan xedatutakoarekin bat.

2.- El traspaso del tramo transferido de autopista respetará el régimen jurídico aplicable a la concesión afectada de acuerdo con el marco establecido en el apartado B del Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias aprobado por Real Decreto 314/2019, de 26 de abril.

2.- Eskualdatutako autopista-tartearen eskualdatzeak errespetatu egingo du ukitutako emakidari aplikatu beharreko araubide juridikoa transferentzien Bitariko Batzordeak egin eta apirilaren 26ko 314/2019Errege Dekretuaren bidez onartutako akordioaren B apartatuan ezarritako esparruarekin bat.

En relación a esta concesión, los Órganos Forales del Territorio Histórico de Álava formarán parte, en la delegación de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de la Comisión Técnica prevista en el apartado B) 5 del Acuerdo adoptado por la Comisión Mixta de Transferencias Estado-Comunidad Autónoma del País Vasco aprobado por Decreto 71/2019, de 30 de abril, y por Real Decreto 314/2019, de 26 de abril; asimismo, se subrogarán, para el Territorio Histórico de Álava, en la posición que asume el Gobierno Vasco en el Acuerdo mencionado.

Emakidari dagokionez, Arabako Lurralde Historikoko foru-organoek, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Ordezkaritzari dagokionez, parte hartuko dute apirilaren 30eko 71/2019 Dekretuaren eta apirilaren 26ko 314/2019 Errege Dekretuaren bidez onartutako Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Bitariko Batzordearen Akordioaren B.5. paragrafoak jasotzen duen Batzorde Teknikoan. Halaber, subrogatzen dira, Arabako Lurralde Historikoan, Eusko Jaurlaritzak aipatutako Akordioan

bereganatzen duen lekuan.

Los Órganos Forales de Álava mantendrán una adecuada coordinación y cooperación con el Estado, pudiendo resolver las discrepancias en el ámbito la Comisión Técnica referida en estos epígrafes.

Arabako Foru-organoak eta Estatuko Administrazio Orokorrak koordinazio eta lankidetza egokia izango dute, eta aurreko paragrafoetan aipatutako Batzorde Teknikoan konpondu ahal izango dituzte desadostasunak.

En el plazo de un mes desde la fecha de efectividad del presente acuerdo se realizará la entrega y recepción de la documentación y expedientes de los servicios traspasados y se firmarán las correspondientes actas.

Akordio honen eraginkortasun-egunetik hilabetera eman eta hartuko dira eskualdatutako zerbitzuen dokumentazioa eta espedienteak, bai eta behar diren aktak sinatu ere.

**C) Créditos presupuestarios afectados por el traspaso.**

El coste total anual para la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ejercicio 2019 de las funciones y servicios que en materia de carreteras se traspasan se recoge en la relación anexa número 2.

**C) Eskualdatzearen eraginpeko aurrekontu-kredituak.**

2019ko ekitaldian, errepideen arloan eskualdatzen diren eginkizun eta zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegorako izango duten urteko kostu osoa eranskineko 2. zerrendan dago adierazita.

**D) Fecha de efectividad del traspaso.**

El traspaso de las funciones y servicios objeto de este Acuerdo tendrá efectividad desde el 1 de enero de 2020.

**D) Eskualdatzearen eraginkortasun-data.**

Akordio honen xede diren eginkizun eta zerbitzuen eskualdaketak 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.

(Se adjuntan dos anexos)

(Bi eranskin honekin batera doaz)

Y para que así conste, firmo la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 5 de diciembre de 2019

Eta horrela jasota gera dadin, sinatzen dut ziurtagiri hau Gasteizen, 2019ko abenduaren 5ean.

**LA SECRETARIA/IDAZKARIA**

**Fdo./Iz.: Dª Begoña Pérez de Eulate González And.**

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**RELACIÓN NÚMERO 1**

Relación de bienes que se traspasan al Territorio Histórico de Álava

**Autopista AP-68 (Bilbao-Zaragoza)**

Tramo de 55,214 kilómetros entre el límite entre los Territorios Históricos de Álava y Bizkaia, en el punto kilométrico 22+383, y el límite con la provincia de Burgos, en el punto kilométrico 77+597.

**1. ZERRENDA**

Arabako Lurralde Historikoari eskualdatutako ondasunen zerrenda

**AP-68 (Bilbao-Zaragoza) autobidea**

55,214 kilometroko bide-zatia, autobidea Arabako eta Bizkaiako Lurralde Historikoen arteko mugatik, 22+383 kilometro-puntuan, eta Burgos probintziaren mugara, 77+597 kilometro-puntuan.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**RELACIÓN NÚMERO 2**

Coste total anual para la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ejercicio 2019 de las funciones y servicios en materia de carreteras objeto de traspaso a los Territorios Históricos

**2. ZERRENDA**

2019ko ekitaldian, lurralde historikoei eskualdatu beharreko errepideen arloko eginkizun eta zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegorako izango duten urteko kostu osoa

| Sección<br>Atala | Programa<br>Programa | Capítulo<br>Kapitulua | Miles euros<br>Mila eurotan |
|---|---|---|---|
| 03 | 5141 | 2 | 1.942,70 |
| **COSTE TOTAL ANUAL**<br>URTEKO KOSTU OSOA | | | **1.942,70** |

Dicha valoración tiene carácter provisional en tanto se adopte el Acuerdo de la Comisión Técnica al que se hace referencia en el punto 5 del apartado B del Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias Estado-Comunidad Autónoma del País Vasco aprobado por Decreto 71/2019, de 30 de abril, y por Real Decreto 314/2019, de 26 de abril.

Balorazio hau behin–behinekoa da, apirilaren 30eko 71/2019 Dekretuaren eta apirilaren 26ko 314/2019 Errege Dekretuaren bidez onartutako Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Bitariko Batzordearen Akordioaren B paragrafoaren 5. Puntuan jasotzen den Batzorde Teknikoaren Akordioa onetsi arte.

Los efectos económicos que se deriven para el País Vasco del acuerdo que adopte la Comisión Técnica, se imputarán a las Instituciones Comunes o a los Territorios Históricos en aplicación de la Metodología de Distribución de Recursos y de Determinación de las Aportaciones, que esté vigente en dicho momento.

Batzorde Teknikoak adostutako Akordioak Euskal Herrirako sortzen dituen ondorio ekonomikoak Erakunde Komunei edota Lurralde Historikoei egotziko zaizkie. Horretarako aplikatuko da momentu horretan indarrean dagoen baliabideen banaketarako eta ekarpenak zehazteko metodologia.